

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

400.000 euroko laguntza-deialdia egin da beren I+G+b garatzeko laguntzak kontratatzen dituzten ETEentzat

Bi diru-laguntza dira: lehenengoa, teknologia-zentroekin proiektuak egiteko; bigarrena, I+G+b-rako nazioarteko finantzazioa lortzeko aholkularitza-gastuetarako

Osteguna, 2017.eko maiatzak 18

Garapen Ekonomikoko Departamenduak bi laguntza-deialdi onartu ditu, guztira 400.000 euro direnak, Nafarroako ETEek beraien I+G+b garatzeko beharrezkoak diren laguntzak kontrata ditzaten sustatzeko, bai jarduera zehatzetarako bai nazioarteko programetarako proiektuak egiteko.

Lehenengoa, "Bonu teknologikoak" delakoa, 200.000 eurokoa da, eta teknologia-zentroetako, unibertsitateetako eta ikerketa-erakundeetako zerbitzuak kontratatuz finantzatuko da, ezagutza hori Nafarroako ETEen I+G+b-ra eramateko.

Oro har, laguntzaren zenbatekoa diruz lagun daitekeen % 60koa izango da, eta aurkeztutako jarduera bakoitzeko, gehienez, 200.000 eurokoa izango da. Hala ere, enpresa batek iaz diru-laguntza jaso bazuen eta ikerketa-zentro berarekin ekimen bat aurkezten badu berriro, diru-laguntzaren zenbatekoa % 40koa izango da, gehienez, 14.000 euro. Gizonen eta emakumeen artean bazterkeria saihesteko neurriak hartu dituzten enpresen kasuan, laguntza % 5 eta % 10 artean handitu ahalko da.

2016ko azaroaren 1en eta 2017ko irailaren 29 artean egindako jarduerak diruz lagunduko dira. Laguntzak irailaren 29ra arte eska daitezke www.navarra.es web-orriaren bidez, jarduera amaituta badago izan ezik. Kasu horretan, eskaera ekainaren 3a baino lehen aurkeztu beharko da.

Laguntzen bigarren deialdia

"[SIC bonuak](#)" gisa ezagutzen den bigarren laguntza-deialdia 200.000 eurokoa da.

Horrekin, Garapen Ekonomikoko Departamentuak aholkularitza-gastuak diruz lagunduko ditu, I+G+b finantzatzen duten nazioarteko eta erkidegoko programetarako proiektuak zehazteko, egiteko eta aurkezteko.

Nafarroako ETEek, teknologia-zentrok, ikerketa-organoek eta unibertsitateek jaso ditzakete.

Eskaerak abenduaren 15 baino lehen aurkeztu behar dira www.navarra.es web-orriaren bidez.

Diruz lagun daitekeen gastuaren % 80a izango da laguntzaren

gehienero kopurua, eta zenbait muga egongo dira egindako proiektuak aurkezten diren nazioarteko edo erkidegoko deialdiaren arabera.